

Idazkaria

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

ondorengo lanak egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko: **TOLOSAN 2026RAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA, BI DOKUMENTUETAN BERDINTASUN PRINTZIPIOA TXERTATUTA.** Kontratazioa publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egingo da

Aurkezpena

Tolosako udal gobernuak, Tolosak ondorengo urteetan izango dituen erronka eta lan ilo estrategikoak adosten joateko gobernanza eredu berri bat garatu nahi du metodologia parte hartzaile baten bidez, eta prozesu guztiaren generoaren ikuspuntu txertatuta. Horretarako prozesua hiru fasetan bereizten da: Lehena diseinua, bigarrena diagnostikoa eta azkenik planaren erredakzioa.

Lanketa hau agenda 21 programak duen metodología kontuan hartu beharko du baina prozesu osoaren helburu nagusia hau da: Tolosak ondorengo 10 urteetarako lan ilo estrategiko nagusiak zehaztea, modu parte hartzaile baten bidez eta berdintasun ikuspuntuarekin, eta tresna eraginkor bat eraikitzea udalaren planifikazioa herritar eta eragileekin adostu eta jarraipena eman ahal izateko.

Era berean, prozesu guztia genero-ikuspegiak gidatu behar du, genero ikuspuntu zeharkakotasunez erabiltzeko.

Prozesu osoa eragileekin eta herritarrekin egin nahi denez ezin da planteamendu itxi batekin egin, beraiekin batera eraiki behar da. Hori dela eta, diseinu edo aurretik fase bat egingo da. Fase honetan udalerriaren erronka eta behar

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS.

para la contratación de asistencia técnica para la **ELABORACIÓN DE LA REFLEXIÓN ESTRATÉGICA PARA TOLOSA 2026 Y REVISIÓN DEL PLAN DE AGENDA 21, INCORPORANDO EL PRINCIPIO DE IGUALDAD EN AMBOS DOCUMENTOS.** por procedimiento negociado sin publicidad

Presentación

El Gobierno municipal de Tolosa quiere dar los primeros pasos hacia un nuevo modelo de Gobernanza que posibilitará hacer un diagnóstico compartido de las diferentes realidades de Tolosa y trazar una hoja de ruta basados en el trabajo en común, la participación, el consenso y la incorporación de la perspectiva de género en todo el proceso.

El proceso tomará como base la metodología de los planes de acción de la agenda 21 pero sin olvidar que el objetivo principal es el siguiente: consensuar de forma participativa los retos estratégicos para los 10 próximos años en Tolosa y crear una planificación compartida que sirva como herramienta útil de trabajo para el personal técnico y la administración en general, pero que a su vez sirva para dar cuenta a la sociedad de la planificación municipal y hacer posible su seguimiento.

Así mismo, todo el proceso estará guiado por un enfoque de género, con el objeto de transversalizar la perspectiva de género en el mismo.

Teniendo en cuenta que durante todo el proceso se quiere contar con la participación de vecinos **y** vecinas a título individual y asociaciones, se considera primordial sentar las bases que guiarán todo el proceso en una fase previa o de

Idazkaria

nagusiak landuko dira, behar hauetan oinarrituz foro espezifikoak sortuko dira eta prozesu osorako baliagarria izango den parte hartze markoa ere landuko da

Agiri honen arabera egingo den kontratuak helburua izango du ondorengo lanak egiteko lagunza teknikoa kontratatzea: **TOLOSAN 2026RAKO HAUSNARKETA ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA, BI DOKUMENTUETAN BERDINTASUN PRINTZIPIOA TXERTATUTA.**

Idatzizko Plan berriak honako baldintzak bete beharko ditu:

- Hausnarketa estrategikoa egiteko prozesu hauetan ohikoak diren bi faseoz gain, (diagnostikoa eta erredakzioa) **aurretiko fase bat** egongo da. Fase honetan prozesu osoa gidatuko duen parte hartze markoa finkatuko da eta zaindu behar da emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izan dadin. Ikuspegi honek gidatuko du prozesu guztia eta lehentasunezko ekintza eremuak finkatuko dira, eta eremu horietan genero ikuspuntuak zeharkakotasunez jokatu behar du.
- Lehentasunezko ekintza -eremuak kontuan hartuta, Tolosako **egungo egoeraren laburpena** jasoko duen dokumentua egingo da. Dokumentu hau egiteko, gaur egun udal sailek dituzten plangintza dokumentuak aztertu beharko dira eta indarrean daudenak plan berrian nola txertatu aztertu beharko da.
- **Izaera estrategikoa eta zeharkakoa** izango duen plana izango da, udaleko kargu politiko eta sail desberdinak teknikariantzat erreferente izango diren ikuspegi eta helburuak jasoko dituena.

diseño donde se abordará el marco sobre el modelo de participación así como los principales retos que tiene el municipio de cara al futuro.

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la contratación de la asistencia técnica para la **ELABORACIÓN DE LA REFLEXIÓN ESTRATEGICA PARA TOLOSA 2016 INCORPORANDO EL PRINCIPIO DE IGUALDAD EN AMBOS DOCUMENTOS.**

El nuevo Plan resultante deberá seguir las siguientes pautas:

- Además de las fases típicas en las que se basan la realización de los planes estratégicos (Diagnóstico y redacción) se llevará a cabo otra **fase de diseño**. En esta fase se trabajará el marco de participación ciudadana, incidiendo en la participación de mujeres y hombres de manera equilibrada. Este enfoque guiará todo el proceso y se consensuarán los principales ámbitos estratégicos, en que se debe basar el plan, teniendo en cuenta en el mismo la transversalidad de género.
- Tomando en consideración los ámbitos priorizados en la fase de diseño, se realizará un documento de diagnóstico que sintetice la situación actual del municipio. Para ello el plan deberá tener en cuenta y en su caso integrar los planes sectoriales vigentes que tengan los diferentes departamentos del Ayuntamiento.
- Deberá ser un plan de carácter **estratégico y transversal** que integre la elaboración de una visión y unas metas que sirven de referente para el conjunto de **cargos políticos** del Ayuntamiento.

Idazkaria

- Planean jasotako **ekintzen deskribapenaren kalitatea** eta irismena indartuko dira, ekintza horiek gauzatzea, finantzatzea eta ebaluatzea erraza izan dadin. Honekin, **udal politiken kudeaketan tresna eraginkor** gisa erabil dadila bultzatu nahi da, udal sail desberdinak erabiliko duten tresna.
- Plana denbora- indarraldi luzerako baliagarria izatea lortu nahi da. Eremu zabalagoa duten erakundeen eta nazioarteko erakundeen plangintzak kontuan hartuko dituena. Planaren ikuspegia edo helmuga 2030. urtean jarrita egongo da baina ekintzak 8-10 urteko eperako programatuko dira. Modu horretan, plana ekintzak garatzeko eta gauzatzeko **egiazko epeetara egokituko** den planifikaziorako tresna eraginkor bat izatea lortu nahi da.
- Prozesu guztia gidatu behar dute gizagarapen jasangarriaren printzipioek, horrek ahalbidetzen baitu gizarte-dibertsitatearen onartze praktikoa. Dibertsitate hori markatzen dute bai desberdintasun ekonomiko, politiko eta kulturalek, bai genero- eta belaunaldi-desberdintasunek eta kultur-identitate desberdinek. Ondorioz, kontentsuak lortu behar dira, Tolosako herritarren gaitasun, egokiera eta aukera-berdintasunak hobeto moldatzeko.
- Plangintza, **garapen jasangarriaren** printzipioekin eraiki beharko da, baina **orekatua** izango da garapen jasangarria osatzen duten hiru ardatzen artean; ingurumena, ekonomia eta alderdi soziala.
- Tolosak klima aldaketa eta iraunkortasunaren eremuan ibilbide luzea du. Tolosak PAES deituriko energia plangintza bat du eta Compact of Mayors
- Reforzar la **calidad y alcance de la descripción de las acciones del Plan**, de forma que sean más fáciles de ejecutar, financiar y evaluar. Con ello se pretende potenciar su uso como instrumento de gestión del ayuntamiento en su conjunto.
- Disponer de una **vigencia temporal amplia y alineada con metas supramunicipales internacionales**, (con una visión global a un horizonte 2030 y acciones a 8-10 años), con el fin de constituir un instrumento de planificación más ajustado a los plazos reales de desarrollo y ejecución de acciones.
- Todo el proceso se guiará por los principios del **desarrollo humano sostenible**, que permite el reconocimiento práctico de la diversidad social, marcado no sólo por las diferencias económicas, políticas y culturales, sino por las de género, generación e identidades culturales diversas, y por consiguiente por la necesidad de construir consensos, para el mejor desenvolvimiento de las capacidades, oportunidades y las alternativas de elección de la población tolosarra.
- Todo el proceso se guiará por los principios del **desarrollo sostenible**, pero el plan deberá ser **equilibrado** en cuanto al peso que tienen los tres ejes del desarrollo sostenible. los **ejes medioambiental, económico y social**.
- El plan resultante deberá tomar en cuenta el recorrido de Tolosa en la **lucha contra el cambio climático**. Se deberá analizar la coherencia y confluencia del plan

Idazkaria

ekimenera atxikitzea erabaki zuen. Hori dela eta plangintzaren atal bat, **klima aldaketa arintzeko eta aldaketara egokitze** ekintzak bildu beharko ditu.

- Plan honek **udal politiken gardentasunean** aurrerapausoak egiteko baliagarria izan behar du. Plan honek erraztu egingo du bizilagunek udalaren plangintza ezagutu ahal izatea eta honen betetze maila eta jarraipena egin ahal izatea.
- Plana baliagarria izango da ere, urteko **aurrekontuak** egiteko. Hori dela eta, ekintza bakoitzean programatzen diren jarduerak ekonomikoki kuantifikatzeko moduan idatzi beharko dira.
- Plan honek herritarren eta eragileen **parte hartza bultatzeko eta sistematizatzeko** baliagarria izanbehar du. Alde batetik, plangintza egiteko beharrezko diren fase desberdinietan zehar eta bestetik plana onartu ondoren egin beharreko jarraipenean, herritarren parte hartzeko estrategiak proposatu beharko dira.
- Diagnostikoa eta idatziko den Planak, zein plana egiteko prozesuak EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko Gida metodologikoarekin bat etsori beharko du.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Lan hau egitea: **Tolosan 2026rako hausnarketa estrategikoa eta Agenda 21 ekintza planaren berrikuspena, bi dokumentuetan berdintasun printzipioa txertatuta.**

energético de Tolosa (PAES) así como el compromiso adquirido mediante la firma del Compact of Mayors en mitigación y adaptación al cambio climático.

- Este plan debe ser útil para avanzar en la **transparencia de las políticas públicas**. Uno de los objetivos principales del plan es dotar a las personas que habitan en el municipio de una herramienta útil para que puedan conocer la planificación municipal y hacer un seguimiento sobre su ejecución y cumplimiento.
- El plan deberá diseñarse de forma que facilite la elaboración de los **presupuestos anuales** del ayuntamiento. Es por ello que el modelo de redacción posibilitará la asignación de un presupuesto a las diferentes acciones que se programen.
- Otro de los objetivos de este proceso es el **impulso y la sistematización de la participación ciudadana** en el municipio. Por una parte se diseñara el plan de participación de todo el proceso de elaboración del plan y por otra se diseñaran estrategias para que esa participación continúe una vez aprobado el plan para realizar su seguimiento.
- Tanto el Diagnóstico y el Plan como el proceso para su elaboración deberán basarse en la Guía metodológica para la revisión de Planes de Acción - Agenda Local 21 en municipios de la CAVP

1.- OBJETO DEL CONTRATO.-

Realizar el siguiente trabajo:**ELABORACIÓN DE LA REFLEXIÓN ESTRATEGICA PARA TOLOSA 2026 Y REVISIÓN DEL PLAN DE AGENDA 21 INCORPORANDO EL PRINCIPIO DE IGUALDAD EN AMBOS DOCUMENTOS.**

Idazkaria

Honakoak sartuko dira lan horretan:

- | Honakoak sartuko dira lan horretan: | Incluye: |
|--|---|
| <ul style="list-style-type: none">Aurretiko fasean: Herritarren eta eragileen ordezkaritza anitz batekin elkarlanean, Tolosak etorkizunari begira dituen lehentasun nagusiak identifikatuko dira eta prozesu osoa gidatuko duen parte hartze markoa definituko da. Ordezkaritza horrek bi sexuen arteko oreka izan behar du.Diagnostikoa: Udalerraren egungo egoeraren laburpena jasoko duen agiria egingo da. Dokumentu honetan aurretiko fasean landutakoari jarraituz ekintza plan berriak landu behar dituen lehentasunezko arloak zehaztuko dira. Bistara atera behar dira emakumeen eta gizonen ezaugarri partikularrak; tradizionalki onartzen diren rol eta estereotipoak; ezartzen diren harremanak; eta lurralde eta zerbitzuekiko beren beharrak, beren jarrerak eta helburu pertsonalak garatzeko. Ikuspegি honek aukera emango du, era berean, honakoak aztertzeko: botere-harremanak; aitorta eta balorazioa; eta bizitan zehar gizon-emakumeek dituzten diskriminazioak eta aukerak.Ekintza plan berria definitzea: Dokumentu honek aurkezpenean aipatu diren helburuak lortzen laguntzeko tresna izango da eta, era berean, Udalsarea 21eko gida metodologiarekin bat etorriko da. Planak genero ikuspuntu zeharkakotasunez erabiliko du, bai helburuetan, bai jarduketetan, eta jarriko ditu sexuka banatutako adierazleak (pertsonei dagokienean) eta genero-adierazleak.Parte hartze prozesuetan laguntzea, bai udal barnean parte hartzeko prozesuetan, langile teknikoen eta politikarien artean, bai udaletik kanpokoetan, herritarren sektore desberdinen artean. Egin beharrekoak 2. atalean jasoko dira. | <ul style="list-style-type: none">Fase de diseño: Trabajando en común con un grupo representativo de la sociedad de Tolosa para identificar los principales ámbitos prioritarios de actuación para la próxima década así como definir el marco que guiará la participación ciudadana durante todo el proceso. La composición del grupo debe contemplar el equilibrio en función del sexo.Fase de diagnóstico: Elaboración de un documento de síntesis de la situación actual teniendo en cuenta los ámbitos priorizados en la fase anterior, y que a su vez sirva de base para trabajar el nuevo plan de acción visibilizando las características particulares de mujeres y hombres, los roles y estereotipos de género que asumen tradicionalmente, las relaciones que se establecen, sus necesidades respecto al territorio y sus servicios, tanto para desarrollar sus actitudes como sus aspiraciones personales. Este enfoque también permitirá analizar las relaciones de poder, el reconocimiento y la valoración, las discriminaciones y las oportunidades que tienen mujeres y varones a lo largo de sus vidas.Definición de un nuevo Plan de acción, coherente con la Guía Metodológica para la Revisión de los Planes de Acción Locales de Udalsarea 21. El Plan transversalizará la perspectiva de género tanto en los objetivos como en las actuaciones y fijará indicadores desagregado por sexo (cuando se refieran a personas) e indicadores de género.Ayudar en los procesos de participación, tanto a nivel interno en el Ayuntamiento –entre trabajadores/as técnicos/as y políticos/as– como a nivel externo –entre varios sectores de la ciudadanía–, según queda definido en el apartado 2. |

Idazkaria

2- LAGUNTZA TEKNIKOAK EGIN BEHARREKO LAN NAGUSIAK

Hauek dira proiektuaren faseak:

- Aurretiko fasea
- Diagnostikoa
- Estrategiaren definizioa
- Ekintzen ezaugarriak finkatzea
- Planaren kudeaketarako eta jarraipenerako erremintak diseinatzea
- Prozesuaren barneko eta kanpoko parte hartzean laguntzea

Kontratatuko den enpresak honako lan hauek egin beharko ditu, fase bakoitzean:

2.1 AURRETIKO FASEA

- Fase honetan prozesu osoaren oinarriak finkatuko dira. Hurrengo bi faseak gidatuko dituen parte hartze markoa finkatuko da eta lehentasunezko ekintza eremuak finkatuko dira. Lan hori guztia parte hartze- eta dinamizazio-teknikekin egingo da, eta kontuan izango da, hora garatzerakoan, genero ikuspegia.
- Prozesu osorako baliagarriak izango diren komunikazio euskarriak landuko dira.
- Udal barneko parte hartzerako mekanismoak aztertu eta birdiseinatuko dira.

2.2 DIAGNOSIA

- Fase honetan oinarrizko informazioa bildu beharko da udal sailen eta teknikariekin elkarlanean.
- Udal sail bakoitzak dituen arlokako planak eta adierazleak aztertu egingo dira.
- Udalerrian eragina duten udal mailako eta udalaz gaindiko beste plangintzak aztertuko dira.
- Fase honen lanketa eta kontrasterako herriar zein eragileekin parte hartze mahai sektorialak sortuko dira. Mahai edo parte hartze foro hauek Aurretiko fasean landutako lan ildo nagusiekin koherente izan beharko

2.- PRINCIPALES TAREAS A REALIZAR POR PARTE DE LA ASISTENCIA TÉCNICA

Las principales tareas y las fases del proyecto son:

- Fase de diseño
- Diagnóstico
- Formulación estratégica del plan
- Caracterización de las acciones
- Diseño de las herramientas de gestión y seguimiento del plan
- Participación interna y externa del proceso.

La empresa contratada deberá realizar los siguientes trabajos:

2.1 FASE DE DISEÑO

- En esta fase se trabajarán las bases que guiarán todo el proceso. Por una parte se definirá el marco de participación y por otra parte se identificarán los ámbitos prioritarios de actuación del plan. Todo este trabajo se realizará mediante técnicas participativas y de dinamización, teniendo en cuenta el enfoque de género para su desarrollo.
- Se trabajará los soportes comunicativos que se utilizarán en todo el proceso.
- Se realizará un análisis y rediseño de mecanismos de participación interna del ayuntamiento.

2.2 DIAGNOSIS

- Recopilación e integración de información básica conjuntamente con los y las técnicas municipales.
- Recopilación y análisis de los resultados de la evaluación de los planes existentes.
- Recopilar otros planes y marcos de reflexión supramunicipal y a nivel europeo con incidencia en el municipio.
- En esta fase se crearán foros o mesas sectoriales para el contraste en la elaboración del diagnóstico. La configuración de los foros deberá ser coherente con los ámbitos priorizados en la fase de diseño y

Idazkaria

- | | |
|--|--|
| <p>dute, eta bermatu behar dute gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua.</p> <ul style="list-style-type: none">• Azkenik fase honetan bildutako informazio kuantitatibo eta kualitatiboan oinarritura Tolosako gaur egungo egoeraren laburpena jasoko duen agiria egingo da. Diagnosi Agiria, sintetikoa eta bisuala izango da. Ondorio argiak jasoko ditu eta ondorengo fasearen helburuak formulatzeko erabiliko dira.• Agiri honek gutxienez, Aurretiko fasean adostutako lan ildo nagusiei buruzko gaia jasoko ditu eta baita ere, Udalsarea 21en metodologiak derrigorrez eskatzen dituenak. | <p>garantizando la representación equilibrada de mujeres y hombres.</p> <ul style="list-style-type: none">• Por último, tomando como referencia la información cuantitativa y cualitativa recopilada en esta fase, se elaborará un documento que resuma la situación actual. El informe de diagnóstico será sintético y visual. Recogerá conclusiones claras que servirán para formular los objetivos de la siguiente fase.• Este documento recogerá como mínimo los temas relativos a las líneas de trabajo principales acordados en la fase previa o de diseño así como los ámbitos obligatorios que marca la metodología de udalsarea21. |
| <h3>2.3. ESTRATEGIAREN DEFINIZIOA</h3> <ul style="list-style-type: none">• Fase honetan planaren ikuspegia eta helburu estrategikoak formulatzeko laguntza emango da. Haiek genero ikuspuntua zeharkakotasunez erabiliko dute.• Helburu estrategikoak udal teknikariekin, maila politikoan eta herriarren parte hartze foroetan landu eta adostuko dira. | <h3>2.3 FORMULACIÓN ESTRATÉGICA DEL PLAN</h3> <ul style="list-style-type: none">• Durante esta fase se ofrecerá el apoyo necesario para la formulación del enfoque y los objetivos estratégicos del plan que transversalizarán la perspectiva de género.• Estos objetivos estratégicos se elaborarán y acordarán conjuntamente con las y los técnicos municipales, con la representación política y los foros sectoriales de participación ciudadana. |
| <h3>2.4. EKINTZEN EZAGARRIAK FINKATZEA</h3> <ul style="list-style-type: none">• Aurreko faseetan oinarritzuz helburu estrategikoak ekintzetan zehaztuko dira.• Fase honetan ere ekintzak udal teknikariekin, maila politikoan eta herriarren parte hartze foroetan landu eta adostuko dira.• Planaren dokumentua idaztea. | <h3>2.4. CARACTERIZACIÓN DE LAS ACCIONES</h3> <ul style="list-style-type: none">• Tomando como base los establecido en las fases anteriores, los objetivos estratégicos se materializarán en acciones concretas.• En esta fase también la elección de las acciones se acordarán conjuntamente con los y las técnicas municipales, con la representación política y los foros sectoriales de participación ciudadana.• Redacción del documento que recogerá el plan.• Caracterización de las acciones, que deberá contar con la aportación y participación del personal técnico municipal en parte de las tareas. La caracterización de las acciones considerará el conjunto de descriptores considerados en la metodología: |

Idazkaria

<ul style="list-style-type: none">• Ekintzaren izenburua• Deskribapena• Gauzatzeko epea• Aldizkakotasuna• Lehentasuna• Kostua• Erantzukizuna• Finantzazioa• Adierazleak, sexuaren arabera banatuta.• Efektua, emakume eta gizonen berdintasunean.	<ul style="list-style-type: none">• Título de la acción• Descripción• Plazo de ejecución/implantación• Periodicidad• Prioridad• Coste• Responsabilidad• Financiación• Indicadores desagregados en función del sexo.• Efecto sobre la igualdad de mujeres y hombres
<ul style="list-style-type: none">• II. dokumentua idaztea: Ekintza-plana.• Ekintza planaren LABURPEN bat egingo da, era laburrean azalduko dituena Ekintza-plan berriaren funsezko alderdiak, bere ondorio potentziala emakume eta gizonen berdintasunean, eta herritarrentzat ulergarria izango dena.• Exekuzio-laburpena, era dibulgatzailean.	<ul style="list-style-type: none">• Redacción del segundo documento. Plan de Acción.• Se realizará un RESUMEN del plan, que de manera breve incorpore los aspectos clave del nuevo Plan de acción y su efecto potencial sobre la igualdad de mujeres y hombres y que sea comprensible para el conjunto de la ciudadanía.• Resumen ejecutivo del mismo en forma divulgativa.
<p>2.5. PLANAREN KUDEAKETARAKO ETA JARRAIPENERAKO ERREMINTAK DISEINATZEA</p>	<p>2.5 DISEÑO DE INSTRUMENTOS DE GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PLAN.</p>
<ul style="list-style-type: none">• Planaren kudeaketarako eta jarraipenerako erremintak diseinatzea. Erreminta horiek kontuan izango dute prozesu guztiaren genero-ikuspuntuaren jarraipena egin behar dela.	<ul style="list-style-type: none">• Diseñar los instrumentos de gestión y seguimiento del plan. Dichas herramientas tendrán en cuenta el seguimiento de la perspectiva de género en todo el proceso.
<p>2.6. PROZESUAREN BARNEKO ETA KANPOKO PARTE HARTZEAN LAGUNTZEA</p>	<p>2.6 COLABORAR EN LA PARTICIPACIÓN INTERNA Y EXTERNA DEL PROCESO</p>
<p>Prozesuan zehar herritarren parte hartzerako beharrezkotzat joko diren saioak (7gutxienez) antolatzeko lagunza eskainiko zaio udalari</p>	<p>Soporte a la organización para realizar cuantas sesiones de participación ciudadana se consideren necesarias a lo largo del proceso (mínimo 7).</p>
<p>Egin beharreko lanak:</p> <ul style="list-style-type: none">• landu behar diren gaiak antolatzea• bileretara bertaratzea	<p>Las funciones a realizar en estas sesiones consistirán en:</p> <ul style="list-style-type: none">• Organizar los temas a tratar• Asistir y dinamizar las reuniones
	<p>Soporte y desarrollo de la dinamización de un</p>

Idazkaria

Prozesuan zehar **udal teknikariekin** gutxienez 3 lan-saio antolatzen eta dinamizatzen laguntzea; saio horietan diagnostikoari eta ekintza-planari lotutako gaiak landuko dira.

Enresa esleipenduna prest egongo da, fase desberdinietan **ordezkari politikoekin** egin beharko diren bilerak antolatzeko eta dinamizatzeko.

mínimo de 3 sesiones de trabajo con **personal técnico municipal** a lo largo del proceso, vinculadas a la fase de diagnóstico y plan de acción respectivamente.

La empresa adjudicataria, estará dispuesta a organizar y dinamizar cuantas reuniones se precisen con las y los **representantes políticos** en las diferentes fases del proceso.

3.- LANAK AURKEZTEA

Prozesuaren emaitza gisa, honako dokumentuak eta beren laburpen dibulgatiboak aurkezu behar dira gutxienez, eta ez-sexista izan behar du hizkuntza idatziak eta ikonikoak:

- I. Dokumentua: egungo egoeraren laburpena jasoko duen agiria.
- II. Dokumentua: Ekintza-plana eta jarraipena.

Herritarra informatzeko xedearekin, dokumentu guztietatik laburpen bat aurkeztuko da.

Horietan guztieta, bi kopia entregatu behar dira: kopia bat paperean eta bestea CDan (Word eta PDF). Agiri guztiak **elebidun (euskaraz eta gaztelaniaz)** aurkezu beharko dira.

Como resultado de ese proceso, deben entregarse estos documentos y sus resúmenes divulgativos utilizando un lenguaje escrito e icónico no sexista.

Documento I: Documento de síntesis de la situación actual.

Documento II: Plan de acción y seguimiento.

De estos dos documentos se realizarán resúmenes divulgativos.

En todos ellos, deben entregarse dos copias: una copia en papel y otra en CD (Word y PDF). Toda la documentación deberá entregarse en **bilingüe (euskeraz y castellano)**.

4.- PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Udalak udal bi langile izendatuko ditu proiektua zuzentzeaz arduratu daitezen.

4- DIRECCIÓN DEL PROYECTO

El Ayuntamiento designará al personal municipal para realizar las tareas propias de Dirección del Proyecto

Tareas de la Dirección del proyecto

Proiektuaren Zuzendaritzaren lanak

Proiektua zuzentzeko Udalak izendatuko dituen pertsonak, besteen artean, ondoren zehazten diren lanak egiteko ardura izango dut:

- Plana berrikusteko prozesuan parte hartzen duten udal langileak eta kargu politikoak koordinatzea.
- Herritarren parte hartze prozesuak

Las personas designadas por el Ayuntamiento para la Dirección de este proyecto serán responsables de realizar, entre otras, las siguientes tareas:

- Coordinación con el conjunto de personal técnico y cargos políticos del Ayuntamiento implicados en el proceso de revisión del Plan.
- Coordinación de los procesos de

Idazkaria

- koordinatzea.
- Udal barruko informazioa biltzen laguntzea.
 - Prozesuan zehar sortutako agiriak berrikustea eta balioztatzea.
 - Udal teknikariekin koordinatzea Planaren ekintzen ezaugarriak identifikatzean, fase horretan haien parte hartzea bermatzeko.
 - Lagunza teknikoarekin solaskide-lanak egitea.
 - Proiektuaren faseen jarraipena egitea.
 - Berdintasun Departamentuarekin koordinatzea, lanaren azken txosten bat idazteko, egindako planak izan duen genero-inpaktu jasoko duena.

- participación ciudadana.
- Coordinación para la recopilación de información interna del ayuntamiento.
 - Revisión y validación de los documentos generados a lo largo del proceso.
 - Coordinación con el personal técnico municipal en la fase de caracterización de las acciones del Plan para garantizar su implicación en esta fase.
 - Interlocución con la asistencia técnica.
 - Seguimiento de las fases del proyecto.
 - Coordinación con el Departamento de Igualdad para la realización de un informe final del trabajo en el que se muestre el impacto de género del plan elaborado.

5.- GAUZATZEKO EPEA

Kontratacio honetako lanak **2016ko abenduaren 20rakoegongo dira bukatuta.** finalizados el **20de diciembre de 2016.**

6.- ESKAINTZEN EDUKIA

Administrazio-baldintza zehatzen Agiriaren 11. atalean zehaztutako irizpideen arabera baloratuak izan daitezen, eskaintzetan honako AZALPEN agiriak sartuko dira, :

- Ekarpenak oinarri metodologikora, plegu teknikoetan zerrendatuko helburuak aintzat hartuz.
- Eginkizunen azalpen zehatza, egiten duenaren sexua, dedikazioa eta egutegia adieraziz eta lan-kronograma
- Prozesuan herritarren, udal langileen eta politikarien parte hartzea sustatzeko proposamenak eta plangintza
- Prozesua komunikatzeko proposamenak.
- Eskaintza teknikoan, gardentasun alorrean hobekuntza suposatuko duten proposamenak, eta genero ikuspuntuaren zeharkakotasun-sistema.
- EAEn azken 6 urteetan lan taldea osatzen duten pertsonek udal plan estrategiko orokorretan eta Agenda 21eko ekintza planen idazketan edo berrikuspenetan parte hartu

5.- PLAZO DE EJECUCIÓN

Los trabajos de esta contratación deberán finalizados el **20de diciembre de 2016.**

6.- ESKAINTZEN EDUKIA

Para la valoración de las ofertas según el punto 11 del pliego administrativo, se entregarán los siguientes documentos:

- Aportaciones a la base metodológica, teniendo en cuenta los objetivos descritos en el pliego técnico.
- Desglose detallado de tareas asignando dedicación, sexo de la persona que la realiza y calendario, cronograma de trabajo.
- Propuestas dirigidas a promover la participación ciudadana y la participación interna del personal trabajador y político.
- Propuestas de proceso de comunicación.
- En la oferta técnica, propuestas de mejora en cuanto a transparencia y sistema de transversalización de la perspectiva de género.
- Una relación, desagregada por sexo, de la participación de las personas que forman el grupo de trabajo en la redacción de planes estratégicos municipales y/o en la redacción y revisión de Planes de Acción de Agenda 21

Idazkaria

badute, horien zerrenda idatziko da agiri batean, sexuaren arabera banatuta.

- Plangintza energetikoen idazketan parte hartu badute, horien zerrenda idatziko da agiri batean, sexuaren arabera banatuta. Idatzitako plan bakoitzeko puntu bat, Plan beragatik ezin izango da puntu bat baino gehiago eman.

durante los últimos 6 años en la Comunidad Autónoma Vasca.

- Una relación de la participación del personal adscrito al grupo de trabajo, desagregado por sexo, en la redacción de planes energéticos. Por cada plan redactado por municipio se concederá un punto (hasta 5 puntos). No se podrá conceder más de un punto por el mismo Plan.

Tolosan, 2016ko martxoaren 15(e)an

ALKATEA